

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

4326

190/2021 DEKRETUA, uztailaren 27koa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziari Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren zuzeneko eta zeharkako titulartasuneko akzioen ordezkari baimena ematen baitzaie sozietate horren estatutuen 6. artikulua aldatzea-ekin ados egoteko.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluak, 2021eko martxoaren 31ko bileran, Eusko Jaurlaritzara jotzea erabaki zuen, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoa sortu duen Euskal Autonomia Erkidegoko 2018 ekitaldirako aurrekontuak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriaren 5. zenbakiaren c) letraren arabera, baimena eman ziezaion SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziari Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko, guztira 80.000 euro ordainduta, hau da, gehikuntza horren % 100. Eragiketa horren ostean, sozietate horretan % 100koa izango da SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren parte-hartzea.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuaren 110.1 artikuluan ezartzen denez, enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da dekretu hori; baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean.

Kapitala ordezkatzeko duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuan, non eta ez diren doan eskuratzeko, nahitaez adieraziko da sozietatearen xedea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoak eskuratzeko horretan zuzenean nahiz zeharka izango duen partaidetzaren ehuneko ere.

Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment SA sozietatearen xedea da ekonomiaren eta euskal enpresen nazioartekotzea, eta enpresei eta eragile eskudunei sostengua ematea haien nazioartekotze-proiektzioan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko inbertsioak erakartzeko.

Kapitala handitu nahi da, hain zuzen ere Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment SAk aurreikusita duen fidantzak gordailutzea eta finantza-inbertsioak egitea, finantzaketa-premia duten menpeko sozietateetan.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko uztailaren 27an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia ente publikoari baimena ematea Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment SAren kapital sozialaren gehikuntzan parte-hartzeko, laurogei mila euroko (80.000,00) zenbatekoan. Eragiketa horren ondoren, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak % 100eko partaidetza izango du sozietate horren kapital sozialean.

2. artikulua.– Baimena ematea SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren titulartasuneko akzioen ordezkariari, kapital-gehikuntzaren ondorioz, Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment SA sozietatearen estatutuen 6. artikulua aldatzeko adostasuna emateko, zeina honela idatzita geratuko baita:

«Sozietatearen kapitala ehun eta berrogeita hamabost mila (155.000) euro da, honela banatuta: 1.550 akzio izendun, bakoitza ehun euroko (100,00) balio nominalekoa eta guztiak mota berekoak, 1etik 1.550era bitarteko zenbaki korrelatiboekin, biak barne; eskubide politiko eta ekonomiko berdinak dituzte eta oso-osorik harpidetuta eta ordainduta daude».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 27an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.